



I Urtarrila 2019 I

Urtarrilaren hasieran RETRACE (Regions Transitions towards a Circular Economy) proiektuko bazkide guztiak Eslovenian izan ziren bertan ospatu zen bostgarren koordinazio bileran proiektuaren jarraipena egiteko.

Proiektuko fase bakoitzaren aurrerapen maila, zereginen errepassoa, momentura arte lortutako helburuak, definitutako ekintzak aurrera eramateko hurrengo eman behar diren pausoak... bezalako gaiak izan ziren bilera horretan bazkideek eskuartean izan zituztenak.



2018ko azken newsletterrean jakitera eman genuen bezala, Azaro Fundazioak beste europako sei erakunderekin batera parte hartzen duen RETRACE proiektu europarra bere bigarren fasean murgilduta dago.

Momentu honetan EGEFk Interreg Europa programaren baitan diruz lagundutako proiektuko honetako bazkide bakoitza bere lurralderako definitu duen Ekintza Planaren inplementazio fasean dago.